## Zerga-bilketa eta genero eraginaren txosten ekonomikoa.

## Foru Dekretu proiektua, interes orokorreko xedeen esparruan 2014. eta 2015. urteetako lehentasunezko mezenasgo jarduerak ezartzen dituena.

Txosten honetan kuantifikatzen da zenbateko eragina izan dezakeen genero aldetik eta Gipuzkoako Foru Ogasuneko zerga-bilketan, Foru Dekretu proiektua, interes orokorreko xedeen esparruan 2014. eta 2015. urteetako lehentasunezko mezenasgo jarduerak ezartzen dituena.

Helburua da kalkulatzea zer neurritan aldatuko den zerga-bilketa gaur egun indarrean dagoen araudiaren ordez arau proiektu berrian jasotzen diren aldaketak aplikatzen badira. Hortaz, txosten honen xedea ez da proiektuan sartzen diren neurriak termino absolututan ebaluatzea, neurri horiek hartu eta indarrean daudenekin alderatzea baizik.

## Memoria económica de impacto recaudatorio y de genero.

## Proyecto de Decreto Foral, por el que se declaran las actividades prioritarias de mecenazgo para los años 2014 y 2015 en el ámbito de los fines de interés general.

En esta memoria se trata de cuantificar el impacto de género y el impacto recaudatorio en la Hacienda Foral de Gipuzkoa del Proyecto de Decreto Foral, por el que se declaran las actividades prioritarias de mecenazgo para los años 2014 y 2015 en el ámbito de los fines de interés general.

Se trata de estimar la variación de recaudación que se produciría al sustituir la normativa vigente por las modificaciones que se contemplan en el nuevo proyecto normativo. En consecuencia, no es el objetivo de este informe la evaluación en términos absolutos de las medidas incluidas en el Proyecto, sino su estudio en relación a las actualmente existentes.

Zenbait esparrutan eman diren aldaketa txiki batzuez gain, 2013arekin alderatuta aldaketa nagusienak honako hauek dira:

- Kendu egin dira lehentasunezko jarduera bezala landa ingurunea garatzeko eta ingurumena babesteko politiken esparruan egindako jarduerak.

- Kirolaren esparruan lehentasunezko jarduera bezala hartuko dira protagonistak emakumeak diren edo emakumeen partaidetza bultzatzen duten jarduera guztiak, berariaz, genero-estereotipoak haustea bultzatzen dutenak, edota emakumeen ikusgarritasuna eta aitorpen soziala sustatzen dutenak.

Además de las pequeñas modificaciones que se han dado en determinados ámbitos de actuación, las principales modificaciones sobre 2013 son:

- la eliminación de las actividades prioritarias en el ámbito de las políticas de desarrollo del medio rural y de protección del medio ambiente.

- Dentro del ámbito del deporte se consideran como actividades prioritarias todas las protagonizadas por mujeres o que impulsen la participación de las mismas, y que específicamente impulsen la ruptura de estereotipos de género o fomenten la visibilización y reconocimiento social de las mujeres.

**Eragina zerga-bilketan**

Aldaketa horien eraginak zerga-bilketan zerikusia du apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren

**Impacto recaudatorio**

El impacto recaudatorio de esas modificaciones tiene relación con los beneficios fiscales establecidos en el artículo 29 de la Norma Foral 3/2004 de 7 de abril, de régimen fiscal de las

aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, ezartzen dituen zerga pizgarriekin. Azaletik hiru dira lehentasunezko jardueretara zuzendutako zenbatekoak dituzten zerga pizgarriak:

- Oinarri ezargarria kalkulatzerakoan gastu kenagarria da Sozietateen gaineko Zergan, Ez-egoiliarren gaineko Zergan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, jarduerak ekonomikoak egiten badituzte eta zuzeneko zebatespeneko erregimenean tributatzten badute.
- %18ko kenkaria kuotan Sozietateen gaineko Zergan, Ez-egoiliarren gaineko Zergan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, jarduerak ekonomikoak egiten badituzte eta zuzeneko zebatespeneko erregimenean tributatzten badute.
- %20ko kenkaria kuotan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, baldin eta ez badute tributazten zuzeneko zebatespeneko erregimenean.

entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo. A grandes rasgos tres son los beneficios fiscales aplicables a las cantidades destinadas a las actividades prioritarias:

- Consideración de gasto deducible para determinar la base imponible del Impuesto sobre Sociedades, del Impuesto sobre la Renta de los no Residentes y del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que desarrollen actividades económicas y tributan en el régimen de estimación directa.
- Deducción en cuota del 18% en el Impuesto sobre Sociedades, en el Impuesto sobre la Renta de los no Residentes y en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que desarrollen actividades económicas y tributan en el régimen de estimación directa.
- Deducción en cuota del 20% en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, en el caso de contribuyentes que no tributen en régimen de estimación directa.

Zerga-bilketan izango duten eragina aurreikustea oso zaila da, izan ere zerga aitorpenetan datorren informazioa ez da egokia beharrezkoa den kalkulua egiteko. Dena den, eta zerga pizgarri horiek izaten dituzten zenbatekoen ideia bat edukitzeko, 2013ko ekitaldi fiskalean aplikatu daitezkeen zenbatekoen berri ematen dugu. Esan beharra dago, PFEZren kasuan zenbatekoen barruan daudela bai lehentasunezko jardueraetara zuzendutako ekarpenak eta baita mezenasgora egindako ekarpenak ere.

- Kenkariak Sozietateen gaineko Zergaren kuotan: 1,8 milioi euro.
- Kenkariak PFEZren kuotan(*): 2,0 milioi euro.

(*) Barne daude, bai lehentasunezko jardueraetara zuzendutako ekarpenak eta baita mezenasgora egindako ekarpenak ere. 2013an kenkaria %10ekoa izan zen.

La estimación del impacto recaudatorio resulta muy complicada, ya que no se dispone en las declaraciones tributarias de la información adecuada para su cálculo. De todas formas y para tener una referencia de las cuantías en que se mueven estos beneficios fiscales, detallamos los importes de deducción aplicable en el ejercicio fiscal de 2013. Debemos señalar que para el caso de las deducciones en cuota del IRPF incluyen tanto las aportaciones a actividades prioritarias como las aportaciones al mecenazgo.

- Deducciones en cuota en el Impuesto sobre Sociedades: 1,8 millones de euros.
- Deducciones en cuota en el IRPF(*): 2,0 millones de euros.

(*) Incluye tanto aportaciones a actividades prioritarias como aportaciones al mecenazgo. En 2013 la deducción era del 10%.

Hori guztia kontuan hartuta, eta beti ere aplikatu daitezkeen zenbatekoak 2013ko ekitaldikoen antzekoak badira, aurreikusten den eragina

Teniendo en cuenta estas circunstancias, y siempre y cuando los importes aplicables se sitúen en cuantías similares al ejercicio 2013, se

zerga-bilketan oso txikia izango da, aurreko urteetan indarrean egon den araudiarekin alderatuta.

estima que las modificaciones propuestas van a tener un impacto recaudatorio muy reducido en comparación con la normativa vigente en ejercicios anteriores.

**Genero eragina**

Jarduera jakin batzuei pribilegiozko zerga tratamendua ezarrita, beraiei egindako ekarpenak eta finantzazio pribatua erakargarriagoa eta onuragarriagoa bihurtzen ditu. Beraz, jarduera horiek, bereizketak existitzen diren eremuetan emakumezkoen parte-hartzea sustatzen eta indartzen badute, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzen ari da.

Proiektu honen berrikuntzetako bat da lehentasunezkotzat jotzen diren jarduerek eragina baldin badute genero berdintasunaren esparruan, txosten bat izan beharko dutela, non adierazten den zer neurritan betetzen dituen genero-estereotipoak ezabatzeko eta emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzeko helburuak.

**Impacto de género**

Dotar de un tratamiento fiscal privilegiado a ciertas actividades hace que las aportaciones y la financiación privada a las mismas resulten más atractivas y beneficiosas. Por tanto, si dichas actividades fomentan y fortalecen la participación de las mujeres en aquellos ámbitos dónde existen discriminaciones, se esta impulsando la igualdad entre hombres y mujeres.

Una de las novedades de este proyecto es que aquellas actividades declaradas prioritarias que tengan incidencia en el ámbito de la igualdad de género, deberán contar con un informe sobre el cumplimiento de los objetivos de eliminación de estereotipos de género y del fomento de la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

Baldin eta lehentasunezko jarduera horiek (eginkizun sozial handia betetzen dutenak) berdintasun politikak eta irizpideak badituzte, bere osotasunean gizartean dauden desberdintasunak murrizten ari dira. Beraz, mota horretako jarduerak bultzatzean, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna bultzatzen da, eta genero aldetik eragin positiboa izango dute.

Si esas actividades prioritarias (que cumplen una función social importante) contienen políticas y criterios de igualdad, están reduciendo en su conjunto las desigualdades sociales. Por tanto, al fomentar ese tipo de actividades, se esta impulsando la igualdad entre mujeres y hombres, y tendrán un efecto positivo desde el punto de vista de género.

Donostia, 2014ko azaroaren 3a

San Sebastián, a 3 de noviembre de 2014

AZTERLANETAKO ATALBURUA
JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS